

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari aurkeztu dio 2019rako Aurrekontu Orokorren aurreproiektua

Exekutiboak aste honetan onartuko du Foru Lege proiektua, Nafarroako Parlamentura igorri baino lehen

Astelehena, 2018.eko urriak 29

Ogasun eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren aurrean aurkeztu du gaur goizean 2019rako Aurrekontuen Foru Lege aurreproiektua, 4.010 milioi euroko gastu ez-finantzarioaren sabaia aurreikusten duena, aurten baino 120,8 milioi handiagoa. Gainera, gastu finantzarioak 21,2 milioi euroko gehikuntza izango du datorren urteko ekitaldian.



Aranburu kontseilaria, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialarekiko bilerako buru.

Kontseilariak balorazio positiboa egin du aurrekontuei buruz, izan ere, “gastu-sabaia igo eta defizita 61 milioitan murrizteaz gain, diru gehiago bideratuko diote gastu sozialari, Legealdiaren hasieraz geroztik interesen ordainketa 117 milioitan murriztea ahalbidetu duen kudeaketa onari esker”. Era berean, hazkundera departamentu guzti-guztietan gertatuko dela nabarmendu du, “lau urteko gutzizko zenbatekoak kontuan harturik”.

Nafarroako Gobernuak aste honetan onartuko du foru legearen proiektua, Foru Parlamentura igorri baino lehen.

[Aurreratu zenez](#), zerbitzuen kalitatearen hobekuntzan aurrera egitea, ekonomia eta enplegua bultzatzea eta eskubide sozialak indartzea dira aurreproiektuari eusten dioten ardatzak. Hartara, % 5,06 gehitu da Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua, bereziki irakasleen arloko inbertsioaren hazkundeagatik; eta % 2,57 Osasun Departamentuarena, lehen mailako arreta berria eta ospitaletako teknologietan egin beharreko inbertsioak bidera ditzan. Eskubide Sozialetako Departamentuari esleitutako aurrekontua ere hobetu da, % 2,65eko igoerarekin, enpleguaren aldeko politika aktiboak hobetzeko eta mendekotasunari zuzendutako arreta sendotzeko.

I+G+b arloko inbertsioaren hazkundera (% 10,4 gehiagokoa) dakarren S3 Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren garapena da Garapen Ekonomikoko Departamentuaren funtsezko helburuetako bat. Departamentu guztizko aurrekontua % 1,23 jaitsi da. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren kasuan, aurrekontua % 4,79 igo da, eta Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuarena % 12,17, batez ere langile publikoen soldatetan sindikatuekin adostu duen igoeraren eraginez.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Departamentuaren kasuan, aurreikusitako aurrekontua % 10,39 gehitu da Nafarroako Memoriaren Institutuari esleitutako kontu-sailagatik, eta Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuarena % 4 igo da, nahiz eta guztizko kopuruetan % 9ko jaitsiera ageri den 2018ko aurrekontuaren aldean, aurtan Nafarroa Arena irekitzeko bideratu den 6,6 milioi euroko kopuruaren ondorioz.

Ogasuna eta Finantza Politikako Departamentuak ere % 0,31 murriztu du gastua, bereziki zorraren interesen ordainketan izandako 16 milioiko jaitsierari esker.

Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren bilera

Bestalde, Nafarroako Ingurumen Kontseiluak gaur goizean egindako bileran, Ingurumeneko zuzendari nagusi Eva Garcíak 2019rako aurreikusita dauden aurrekontu-sailak aurkeztu ditu. Guztira, 21.600.234 €, hots, aurreko urtean baino % 12,11 gehiago. Honela, esparru honi 2015az geroztik zuzendutako kontu-sailaren goranzko joerari eutsi zaio, % 71 inguruko guztizko hazkundera tarteko.

Ekonomia Zirkularren eta Uraren Zerbitzuan hondakinen funtsaren kargura esleitutako 637.888 euroko guztizko balioa duten kontu-sailak dira 2019ko berritasun nagusia, toki erakunde eta enpresentzako nahiz narriatutako eremuak berreskuratzeko dirulaguntzetarako. Ibaien hobekuntzarako, arrain-haztegiatarako (180.000) eta azpi-arroetako planak berritzeko inbertsioak ere hazi dira.

2019an ere, arreta berezia emanen zaio natura inguruneari, kontserbazioaren zein ustiapen iraunkorraren ikuspegitik. Horren harira, arras azpimarratzekoa da natura parkeetan eta babestutako beste esparru batzuetan egin beharreko inbertsioetarako kontu-saila, 620.000 eurokoa, ia % 32ko hazkundera izan duena. Halaber, 21.000 euro bideratuko dira esparruak hobetu eta egokitzeko, abelbideak eta mendiarteak barne harturik.

Lurraldean eta Paisaian, 2019an, 330.000 euro bideratuko dira paisaiari eta azpiegitura berdeari buruzko azterlanak eta lan teknikoak garatzeko, eta horrenbestez, aurrekontua 2018koa baino % 13,79 handiagoa izanen da. Horrekin batera, administrazioen arteko lankidetzarako kontu-saila ere gehitu da udal hirigintza planak landu eta eguneratzeko; 645.498 euro, guztira, % 7,58ko hazkunderarekin.

Berrikuntza eta Ezagutza Zerbitzuaren barnean, % 70 gehitu dira ingurumen elkarteei zuzendutako laguntzak (140.000 eurotik 247.000 eurora), ingurumen-hezkuntza, boluntariotza, lurralde-zainketa eta herritarren zientziako ekintzak bideratzeko, % 0,7ko zerga-esleipenari loturikoak.

Azkenik, 800.000 euro bideratu dira I+G+b arloko proiektuetarako, ia % 18ko gehiago, eta beste 173.500 euro europar proiektuen kudeaketarako. Azken hauen artean, honako hauek nabarmen daitezke: LIFE NADAPTA, klima-aldaketa arindu eta horretara egokitzea xede duena; Irekibai eta H2Ogurea, ibaiak hobetzeko; SME Organics, kudeaketa ikuspuntu ekologikotik hobetzeko, eta Aquila LIFE, Bonelliren arranoa babestea helburu duena. Horietan guztietan, sentsibilizazio eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak egitea aurreikusi da.

Nafarroako Ingurumen Kontseilua 1/1993 Foru Legeak sorturiko organo aholku-emailea da,



Aranburu kontseilaria, Aurrekontuko zuzendari nagusi Begoña Urrutia eta NZOko zuzendari kudeatzaile Luis Esain, gaurko saioan.

Departamentuaren ingurumen politikaren elaborazioan nahiz jarraipenean unibertsitateen, ingurumen elkarteen, federazioen (ehiza, arrantza, mendia), sindikatuen, enpresari elkarteen eta eragile ekonomiko eta sozialen partaidetza sustatzea xede duena. Gaurko bileran, honako erakunde hauen ordezkariak parte hartu dute: Ekologistak Martxan, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Ehiza Federazioa; CCOO, LAB, UAGN eta UGT sindikatuak; Nafarroako Enpresarien Konfederazioa; Irache Kontsumitzaileen Elkartea; eta ADECANA, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko, Ingurumeneko Berrikuntza eta Ezagutzaren Zerbitzuko eta Zerbitzu Juridikoko zuzendariekin batera.

Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, organo aholku-emailea

KES Ogasun eta Finantza Politikako Departamentuaren menpeko [organo aholku-emailea](#) da. Gai sozioekonomikoak arautzen dituzten foru lege aurreproiektuei buruzko txostenak eta irizpenak lantzea da haren eginkizun nagusia, bereziki Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuari buruz eta esparru ekonomiko eta fiskalei, lanari, nekazaritzari, enpleguari eta ongizateari loturiko edozein gairi buruz, Nafarroako Gobernuaren zein Parlamentuaren eskariz edo ekimen propioaz.

KESeko kideak dira Foru Administrazioaren eta Toki Administrazioaren ordezkariak; UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuak; Nafarroako Enpresarien Konfederazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, UCAN, ANEL, Santa María la Real Kontsumitzaileen Elkartea, UAGN, EHNE eta Guerlur, ekonomia sozialeko entitateen, kontsumitzaile eta erabiltzaileen, nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen eta ekologisten izenean; eta REAS Nafarroa.